

Beste batzuk

Martin Arrayet Apezetx

- Donibane Garazin jaio zen.
- Alegian hil zen 1958/01/10ean, 75 urte zituela.
- Kontrabandista baten semea.
- Lehen Mundu Gerran ibili zen (1914), zauritu egin zuten, kapitainarekin haserretu egin zen (jo egin zuen), gerra-kontseilua egiteko zain zegoela alde egin zuen Donostiara. Hor ezkondu zen eta bi seme izan zituzten: Balentin eta Joxe. Alegiara etorri ziren bizitzera. Balentin Alemanian ibili zen gerran eta Joxe gerra zibilean.
- Singer josteko makinak saltzen ibiltzen omen zen.
- Diotenez, Altzon kantari hasten bazen, Alegiatik entzuten omen zitzaion, ahots indartsua izan behar zuen.
- Ezkondu ondoren, hiru aldiz joan omen zen Ameriketara, baina “amerikano” moduan ez zen itzuli.
- Joxe Gastesik dioenez, **txirula** jotzen zuen.

Manuel Ignacio Jauregi Lizarribar

- Alegian jaio zen, 1906/01/07an.
- Gerra zibilean hil zen, Ebroko frontean, 1938/11/04an.
- Tolosako Eskolapioetan ikasi zuen, eta Gasteizko bulego batean lanean aritu zen.
- Ikasketen ondorioz, alfereza izan zen soldadutzan, “Tercio de Lacar”eko alfereza.
- Gurasoak oso musika zaleak zituzten eta musika ikastera bultzatu zituzten senide guztiak, Tolosatik etortzen zitzairen irakaslea musika irakasteko.
- Manuelek biolina jotzen zuen.

Joakin Irazusta Gorostiaga

- Alegian jaio zen, 1928/10/22an.
- Musika Alegian, Patxi Urteagarekin eta Lukas Guridirekin, ikasi zuen, lehenengo, eta Iruñeko Salesianoetan ikasi zuen klarinetea eta pianoa jotzen; hango bandako klarinete nagusia izan zen 6 urtez.
- Alegian, festetan jotzeko, Tarragonarekin, Txurreroarekin eta Ikatzarekin osatzen zuten banda.
- Orendaingo elizan kantatzen zuen eta kantatzen du (orain gutxiago, ezinagatik) Prontxio (Floren Zuriarrain) laguna baitu, eta beti izan da Orendain zalea.
- Orendaina harmoniuma jotzera ere joaten zen.

Iñaki Salvador Goikoetxea

- Ibarran jaio zen, 1959/05/11n.
- Ikasketak: Administrarritza.
- Musika:
 - o Tolosako Musika Eskolan ikasi zuen.
 - o Klarinetea ikasten aritu zen 7 urtez, eta horrekin batera, solfeoa, harmonia eta pianoa.
 - o Udaberri dantza-taldean sartu zen musikari moduan eta hor ikasi zuen dultzaina jotzen.

- o Alboka jotzen beranduago ikasi zuen.
- o Iruñeko gaiteroekin ikasketak egin ditu, bere maila hobetzeko.
- o Moko-txirula (flauta de pico) jotzeko ikasketak egin zituen, dultzaina jotzeko, digitalizazioa lantzeko, egokia delako.
- Tolosako Musika Eskolako irakaslea da eta, orain, Alegiako Loatzo Musika Eskolako irakaslea ere bai.
- Ez du konposatu, baina konponketak egin ditu.

Xabi Navarro Etxeberria

- Irunen jaio zen, 1963/04/28an. Alegian bizi izan zen.
- Hona hemen musikarekin egindako ibilbidea, berak kontatua:
"Ikasketei buruz, anaiak eta biok txikitatin solfeo ikasi genuen. Ni lanbidez soinu teknikaria naiz, 1980tik, eta gaur egun ere horretan nabil (www.musikorta.com). ZIKLOX GARAIALDE taldekideen izenak, hauexek: Ni, Xabi Navarro Etxeberria (bateria), Iñaki Navarro Etxeberria (gitarra), Paulo Garaialde Salsamendi (baxua) eta Joxe Manuel Garmendia "Piti" (ahotsa). Taldea 1986an sortu genuen. Anaiak eta biok gitarra jotzen genuen, baina besterik ez. Herriko beste gazte batzuk, tartean gure beste anaia bat zela, talde bat sortzeko materiala eta entseguak egiteko lokala lortu zuten, eta gu, ahal genuenean, trasteak kendu eta bertsioak jotzen genituen: Pink Floyd, The Beat, Police...Horrela hasi ginen. Ez dut gogoratzen instrumentuen banaketa nola egin genuen, baina ni bateriaz arduratu nintzen.
Laster hasi ginen, asuntua serio hartuta, gure kantuak egiten, Pauloren aitaren tailerrean egiten genituen saioak, eta Tolosa aldeko jendea enteratu zenean, Txaramako gaztetxean jotzea proposatu ziguten. Hura izan zen gure lehenengo kontzertua. Ska kaotiko xamarra egiten genuen, nahiko musikari exkakak ginen eta, baino gure kontzertuak festa ederrak ziren, juergarako aitzakia ederra, eta horrek bultzatu gintuen jarraitzera.
Gure material propioa lortzeko helburuarekin, herriko jaietan txozna bat muntatzea pentsatu genuen, 1986ko udan. "Ziklox Garaialde" taldearen aldeko txozna izan zen, eta bertan kontzertuak eta guzti antolatu genituen: Tapia eta Leturia, Txikitixa Tarratada, Fir na Turba,... Herritarren erantzuna izugarria izan zen, jende guztia gurekin lanerako prest, txandak egiten batzuk, korronte elektrikoa erematen edo garraio lanak egiten besteak,...Krixton festa!!. Hurrengo urtean berriz ere errepikatu genuen, noski...eta 1988an, taldea utzia genuenez, erreleboa gazte asanbladak hartu zuen. Gaurko festa alternatiboen hazia jarri genuen, beraz.
Taldeak iraun zuen urte parean, 40 bat kontzertu eman genituen, gutxi gora behera: Tolosan, Txaraman, Hernanin, Gasteizko Izurtzako jaietan, Ordizian, Alegian,... 1987an, Ziklox Garaialde taldea utzi eta laster, anaia eta biok Hernaniko MADARIKATUAK taldean hasi ginen jotzen, berak baxua eta nik bateria, 1990ean taldea desegin zen arte.
Ziklox Garaialde taldearen grabazio bakarra dago, hor nonbait, kasette zahar eta kalitate eskaseko bat. 1987ko "Kilometroak" jaietan grabatua izan zen, Zarautzen. Madarikatuak-en garaikoa, berriz, maketa bat dugu 1988an grabatua."

Iñigo Balerdi Urrestarazu

- Alegian jaio zen, 1968/05/07an.
- Euskal Herriko Informatika fakultatean lizentziatua. Informatika irakaslea da.
- Solfeoa eta txistua ikasi zituen Alegian, Mila Begiristainekin eta Axun Orbegozorekin. Hainbat herritan ibili ziren txistua jotzen.

- D. Bizenterekin ere solfeoa ikasi zuen, sakristian.
- 1978tik aurrera, Loreto Fernandez Imaz organista ospetsuak irakatsi zien solfeoa, Donostiako Kontserbatorioan azterketak egiteko.
- Juan Ignazio Ugartemendia ere irakasle izan zuen, “conjunto coral” gaia prestatzeko.
- 1984tik aurrera, tronpeta jotzen ikasi zuen, Ordiziako Barrena Musika eskolan.
- Andoni Arratibelekin baxu elektrikoa jotzen ikasi zuen.
- Ordiziako Bandako kidea izan zen, 7 bat urtez.
- Alegiako Ziklox Garaialde taldea desagertu eta urte batzuetara taldearen 2. bertsio bat sortu zen. Bertan tronpeta jo nuen. Kontzertu batzuk eman zituzten. Azpeitian, Alegian...
- Alegiako hainbat ekitalditan parte hartzen du: festetan, Sebastopoleko titiriteroekin, txistularien kalejiratan...

Ane Balerdi Begiristain

- Alegian jaio zen, 1985/03/30ean.
- Erizaintzako ikasketak egin ditu eta horretan dihardu lanean.
- Tolosako Musika Eskolan, solfeoa, harmonia, korua, orkestra eta biolontxeloak ikasi ditu.
- Txintxarri Txikiko kidea izan zen eta hor hasi zen musika mundua ezagutzen.
- Musika Eskolako orkestrako kidea izan zen.
- Txintxarri abesbatzako kidea da.

Julen Goikoetxea Orbegozo

- Alegian jaio zen, 1986/09/17an.
- Kazetaritza ikasketak egin da eta horretan dihardu Euskadi Irratian.
- Musika:
 - Solfeo ikasketak, klarinetea ikasten 4 ikasturte eta perkusioa 7 ikasturte eginak ditu.
 - Isidro Larrañagaren orkestran jotzen du.
 - EZEIN taldean, berbenetan jotzen duen 5 kidez osatutako taldea, jotzen ibili zen.
 - BESTE BAT taldean ere bi urtez aritu zen jotzen.
 - DESORDUTAN taldean, pop-rock musika egiten duen taldean, jotzen du 2007az geroztik. 2008ko Kilometroetarako abestia talde honek egin du.
 - Inauterietan EROETXE txarangarekin jotzen du.
 - Txintxarri abesbatzarekin hainbat kontzertutan jo izan du.